

## Carmen Larrañaga

• BERTSOLARITZAREN IKERTZAILEA •

# «Itomena sortzen digu beti gizonetzko inguratuta egoteak»

■ ■ ■ Emakumeak bertsolaritzan izan duen eta duen presentzia tesia idazten ari da Carmen Larrañaga azkoitiar irakasle eta idazlea, ingelesez, Essexko Unibertsitateko. ■ ■ ■ Gaiaren inguruko hainbat artikulu argitaratu du, horietako bat *Breve historia feminista de la literatura española* liburuak euskal literaturari eskainitako atalean. ■ ■ ■ Kritiko ageri da Larrañaga egungo bertsolaritzan ikusten dituen hainbat konturekin.

AHOTS kritikoa da Carmen Larrañagarena, baina berak bertsolaritza maite duelako egiten du kritika hori. Hain gogoko duen arloan behin baino gehiagotan sentitutako «itomen fisikoa» da, berak esan digunez, kritikara bultzatzen duena.

### ■ Zein da egiten ari zaren tesiaren gaia?

Emakumearen presentzia bertsolaritzan, hori da funtsean aztertzen ari naizena. Baina ez bakarrik emakume bertsolariak egon diren edo ez, edo zer gai landu dituzten, edo zer bide egin duten... Baita bertsoetan emakumearen zer irudi ematen den ere. Eta ea gaien tratamenduan zer alde dagoen gizonetako eta emakumezko bertsolarien artean.

### ■ Askok uste izan dutenaren kontra, zuk diozu emakume bertsolariak beti izan direla.

Emakume bertsolariak hasiera-hasieratik egon izan dira bertsolaritzaren historian. Esaterako, Joxepa hondarribiarra Bilintxen garaiko bertsolaririk onena zen Bilintx beraren ustez. Bestalde, Manuel Lekuonak dioenez, bertsolaritzak emakumeek baserrietan egindako lanari esker irau du. Baina hala ere emakumeen izenik ia-ia ez da oroitzen bertsolaritzaren historian, eta horren zergatiaren azterketa da nire ikerketaren gaietako bat.

### ■ Ba al duzu horretaz ezer aurreraterik? Zergatik ahanztura hori?

Nik uste dut bertsolaritza oso praktika maskulinoa dela. Baina ez berez bertsolaritza maskulinoa delako, eremu publikoko praktika delako baizik. Oro har, eremu publikoko ekintzetan, eta batez ere ahotsarekin eta hitz egitearekin zerikusia dutenetan, partaidetza debekatua izan dute emakumeek historikoki, Gaizki ikusia izan da



GLARI GARAIARI

beti emakumea eremu horietan. Bertsolaritza ez da libratzen zama horretatik, politika ere libratzen ez den bezala, esaterako. Hori ezin da bat-batean aldatu. Denbora asko beharko da.

### ■ Azken urteetan, asko handitu da emakumeen presentzia bertsolaritzan, eta zure artikuluan diozu horrek asko aberastu duela bertsolaritza.

Ez dago dudarik. Andoni Egañak ere esan zuen emakume bertsolariak ugaltzeak bere bertsogintzari indar berria eman diola. Egañak, teorkoienetakoa denez, esan ere egiten du hori, baina nik uste dut hain teorkoak ez diren beste askok ere antzera sentituko dutela hori, esan gabe. Bertsolarien arteko harremanetan ikuspuntu ezberdinak sartzeak aberastasuna

### Maskulinitatea

«Bertsolaritza oso praktika maskulinoa da. Baina ez berez maskulinoa delako, eremu publikoko praktika delako haizik»

dakar. Nik uste dut oso aberasgarria dela saioetan gizonetzkoak eta emakumeak ari zela. Soilik emakumezko saioak egitea ere ez zait gaizki iruditzen, baina soilik tarteka, gazteentzako saioak egiten diren bezala, esaterako.

### ■ Nolanahi ere, nahiz eta aurreratu egin dela iruditu, azken urteetan piztu den optimismoarekin ez duzu bat egiten.

Euskararen egoerarekin konparatuko nuke. Lehen baino gehiago hitz egiten da, baina ez da normalizatu, ezta gutxiagorik ere, eta adi egon beharra dago beti.

hain da handia desoreka. Emakume batzuk oso gora heldu dira. Maialen Lujanbio adibidez. Baina horrekin ez dago dena konponduta. Politikan ere emakumeen norma-

lizazioa ez dago lortua Margaret Thatcher edo Benazir Buthe lehendakari izan direlako. Berdintasuna helduko da maila guztietan erdi eta erdi gaudenean, bai gorenekoetan eta bai erdipurdikoetan.

### ■ Zer egin behar litzateke, zure ustez, normalizazio bide horretan?

Ez naiz oso egokia sentitzen galdera horri erantzuteko. Nik uste dut gaiari taxuz eta ganoraz heldu behar zaio. Oso demokrata eta progresistatzat dugu geure burua, baina gero, ekintzetan, ez dugu horrela jokatzeko. Politikari bezala bertsolaritzan, eta arlo guztietan oro har, prestijioa, boterea edo dirua ematen duten zereginetan gizonetzkoak izaten dira nagusi. Zenbat eta prestijio eta botere handiagoa, orduan eta emakume gutxiago. Horixe ikusten da beti.

### ■ Nola jokatu beharko luke, zure ustez, bertsolariek eta bertsozaleek?

Azkeneko Txapelketa Nagusian izan zen aurreneko

### Desoreka

«Prestijioa edo dirua ematen duten zereginetan gizonetzkoak izaten dira nagusi, nahiz eta gaitasun handiagoa ez izan»

aldiz emakume bat epaile; epaimahaian emakumerik ez izateak, edo gutxi izateak, sentsibiltate jakin bat duten bertsolarientzat desabantaila da. Gaiak jartzeko eratu zen taldean emakumeak izan ziren, baina aurkezle lanetan ez zen haietako bakar bat ere aritu. Nik ez dut uste asmo gaiztoz egiten denik hori, baina emakumeoi itomena sortzen digu gure gustuko gauzetan beti gizonetzko inguratuta egoteak, nahiz eta gaitasun aldetik haiek gu baino gehiago ez izan. Diru publikoa erabiltzen ari diren elkarteetan justiziazko gauza bat da kontu horiek zaintzea. Zerrenda luze bat egin beharko litzateke gaitasuna duten emakume guztiak: bertsolariak, ikertzaileak, epaileak, gai-jartzaileak, aurkezleak... Erraza izango litzateke hor oreka bat bilatzea.

### ■ Kuota batzuk jartzearen alde al zaude?

Bai, bai. Uste dut kuota batzuk beharko liratekeela, gaitasuna duen emakumerik ez baita falta. Hori argi dago.

### ■ Andoni Egañak dioenez, bertsozaleen artean onepena izan duten emakumeek jarrera maskulinoak erakustea txalotu izan zaie.

Ez dut aztertu gai hori, baina hipotesi moduan zentzuzkoa iruditzen zait. Bizitzak erakusten dizu eremu berri batera sartzerakoan, homologatzeko, eremu horretan nagusi diren jarreretara hurbildu behar duzula. Goñda Meirri buruz «gizon handia» zela zioten eta Margaret Thatcherri «burdinazko dama» esaten zioten. Gogor agertu beharra zuten, eskuarki feminitatearekin lotu ohi diren balio klasikoekin emetasuna, leuntasuna, ulerberatasuna... ez baitzuten aurrera egingo. Hasieran beste aukerarik ez dago bidea zabaltzeko. Beste aukera bat emakumez osatutako lobby bat osatzea litzateke, baina ez dut horretarako aukerarik ikusten oraingoz.

Juan Luis Zabala  
DONOSTIA